

NIK, EDURNE ITURBE LASCURAIN ANDREAK, ESKORIATZAKO UDALEKO IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAK, HONAKO HAU

ZIURTATZEN DUT:

EH BILDUren 7 zinegotziek alde bozkatuta eta bertaratutako EAJ/PNVko 3 zinegotziek aurka bozkatuta, Udalbatzarrak, 2024ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, ondorengo mozioa onartu zuela:

MOZIOA


Emergentziak Erakunde Sanitario Integratuko egoera egunetik egunera okerrera egiten ari da. Ikusten ari gara ohikoa bilakatzen ari dela mediku gabeko txandak Bizi Euskarri Aurreratuetan. Ikusi dugu nola momentu honetan Oñatiko su hiltzaileen parkean kokatzen den Bizi Euskarri Aurreratuan, martxoak 19ko, 21eko, 22ko eta 24 gauetan ez zela medikuri egon, horrek herritarren larrialdi arretan suposatzen duen guztiarekin. Ezin dugu ahaztu Emergentziak ESI-ak larrialdi egoerak artatzen dituela, maiz hil edo biziko egoerak.

Udara sasoian Debagoiena, arestian aipaturiko egoera berean aurkitu zen eta ondorioz Osasun Sailari bilera eskatu zion egoera konpontzeko asmoz. Baina Debagoienako alkateek eta herritarrek jaso zuten erantzun bakarra izan zen, sarean lan egiten dela eta kalitatezko arreta bermatua zegoela. Alta, sarean lan egitea eraginkorra litzateke, baldin eta larrialdia izandako tokira bermatu beharreko iritxiera denbora estandarra beteko balitz eta nola ez, artapeneko osasun profesionalen ekipoan izan beharreko profesionalen profil guztiak bermatuak baldin badaude. Baina, zoritxarrez momentu honetan ez bata eta ez bestea ez da betetzen. Eta okerrera dena, ez dagoela inolako gardentasunik ez udalekiko eta ez herritarrekiko.

Agerian geratzen ari da, urteetan indarrean dagoen pertsonal politikak, planifikazio gabeziak, kudeaketa eta antolaketa kaxkarrak zein ondorio ekarri dituen. Agerian geratzen ari den bezala premiazkoa dela Emergentziak ESI-ko langileekin elkarlanean, Emergentziak ESI-ko kudeaketa, pertsonal politika aldatzeko premia,

MOZIOA

- 1.-ESKORIATZako udalak eskatzen dio Osasun Sailari E3606 Bizi Euskarri Aurreratu errekurtsuok txanda guztietan bermatua izan dezala medikua.*
- 2.-ESKORIATZako udalak eskatzen dio Osasun Sailari Emergentziak ESI-ko Bizi Euskarri guztiek zein koordinazio zentroek izan beharreko osasun profesionalen ekipoak eta pertsonala izateko pertsonal politika aldatu dezala.*
- 3.-ESKORIATZako udalak eskatzen dio Osasun Sailari Emergentziak ESI-ko langileekin elkarlanari ekitea Ospitalez Kanpoko Larrialdien zerbitzuaren antolaketa eta funtzionamendua hobetzeko xedearekin.*

Kodea/Código	PE24/0023	Udala/Ayto	Eskoriatza	
CUDO	000.0034.AAAAEAYB.2.Rh6Z			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/34/AAAEAYB2.Rh6Z			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko goiko Webgunean sar zaitez edo QR irudia irakurri ezazu / Para verificar la validez de este documento acceda a la WEB o lea la imagen QR				



4.-ESKORIATZAko udalak Osasun Sailari bere prestutasuna adierazten dio elkarlanerako eta herritarrekiko gardentasunez jokatzeko Debagoienari eragiten dioten Osasun Zerbitzuen egoera eta osasun arreta kalitatea hobetzeko xedearekin.

Eta jasota gelditu dadin eta dagozkion ondorioak sor ditzan, ziurtagiria hau egiten dut Alkate jaunaren oniritziarekin. Eskoriatzan, sinaduran adierazitako egunean.

O.E.:

ALKATEA